

opusdei.org

Gipuzkoako Foru Aldundiak Zabalketaren Boliviarako proiektu bat onartzen du

Milaren bat indigena guaranik onura aterako du proiektu honetatik, 129.000 eurokin subentzionatuta dagoena

2006 Mar 19

Gipuzkoako Foru Aldundiak garapen kooperazioko proiektu bat onartu dio

Zabalketari, Foru deialdi honetara lehenengo aldiz aurkezten zelarik.

Zazpi erkidego indigenetan gauzatuko da, zeinetan milaren bat pertsona bizi den, 181 familia guaranietan banatuta. Txirotasun egoera larrian daude familia haiek, Boliviako eskualde behartsuenetako batean.

“Iguembeko Erkidego Indigena Guaranien Garapen Integrala” du proiektuak izen, eta Villa Vaca Guzmán boliviarraren udalean, Chuquisacako Departamenduan, gauzatuko dute.

Hona hemen proiektuaren onuradun diren zazpi komunitateak: Tartagalito, Karatindi, Itiroro, Los Naranjos, Pentirenda, Iticupe y Tentayapi.

Proiektuak Iguembeko organizazio indigena guaranien sendotze instituzionala lortu nahi du ekimen

integral bat garatuz. Milurtekoaren Helburuak direlakoan testuinguruan, eskuartze hau populazio batera zuzentzen da, zein orain dela gutxi asentamendu berrietara desplazatu duten, erdi esklabotza eta bazterkeriako prozesu historiko luze bat igaro eta gero.

Proiektuaren kokalekua Luis Calvo probintzia da. Zabalketak bertan dihardu dagoeneko, abian jarri baitu hor proiektu bat Iti-Karaparirendako erkidego indigena guaraniak integralki garatzeko.

pdf | document generated
automatically from <https://opusdei.org/eu-es/article/gipuzkoako-foru-aldundiak-zabalketaren-boliviarako-proiektu-bat-onartzen-du/> (2026 Ots 6)